



Usurbilgo Udala

2026/01/27

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2026KO URTARRILAREN 27AN  
GOIZEKO 9:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Agurtzane Solaberrieta Mesa.

**Zinegotziak:** Ainhoa Arrozpide Landa eta Iratxe Begiristain Otegi.

**Idazkaria:** Leire Ucin Soraluze.

Ez dira bertaratu: Joxe Mari Lizaso Azkonobieta eta Xabat Beloki Segurola.

**1.- 2026KO URTARRILAREN 13KO AKTA ONARTZEA.**

Batzarkideek 2026ko urtarrilaren 13ko akta aho batez onartu dute.

**2.- TXIKIERDIKO BISTA ALAIA ETXEAN (TXIKIERDI 18) EGINDAKO LEGEZTAPEN OBREI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA (2022OHAN0003).**

MARIA ANTONIA ZABALEGUI ANABITARTE andrearen ordezkartzan diharduen JULEN ARTEAGA IRIONDO jaunak, Txikierdiko Bista alaia etxean (Txikierdi 18) egindako legeztapen obren lehen erabilera baimena eskatu du.

**AURREKARIAK**

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko abenduaren 27an, zera erabaki zuen: MANUEL VAZQUEZ CANO jaunari Txikierdiko Bista alaia etxean (Txikierdi 18) baimenik gabe gauzatzen ari ziren obrak legeztatzeko udal baimena ematea.

**LEGEZTATZEKO BAIMENA EGUNERATZEA ETA TITULARITATE ALDAKETA**

2025eko martxoaren 4an berriz, Tokiko Gobernu Batzarrak, MANUEL VAZQUEZ CANO jaunari emandako obra baimena eguneratzea eta MARIA ANTONIA ZABALEGUI ANABITARTE anderearen izenean jartzea erabaki zuen.

<b>OBRAREN EZAUGARRIAK</b>	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	62.155,00 €
<b>Obra amaierako ziurtagiria:</b>	62.155,00 €
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 1.200 €
	Fidantza (%120): 1.440 €



Usurbilgo Udala

2026/01/27

## LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, JULEN ARTEAGA IRIONDO jaunak, obra amaierako dokumentazio aurkeztearekin batera, Txikierdiko Bista alaia etxean (Txikierdi 18) egindako legeztapen obren lehen erabilera baimena eta hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko jarritako fidantza bueltatzea eskatu du.

## TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, 2026ko urtarrilaren 13an lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena eman du. Hitzez hitz honela dio txostenak:

**BULEGO TEKNIKOA**  
**Udal Teknikariak Alkate andreari**  
**OBRA HANDIAK**  
**TXIKIERDI AUZOKO 18. ZENBAKIAN DAGOEN ETXEBIZITZAREN OBRAK**  
**LEGEZTATZEKO ESKAERARI TXOSTENA**

---

ESKATZAILEA: Maria Antonia Zabalegui Anabitarte  
ESKAERA: Txikierdi auzoko 18. zenbakian dagoen etxebizitzaren obrak legeztatzea  
ESKAERA DATA: 2022ko otsailaren 23a  
KOKAPENA: Txikierdi auzoa, 18. Usurbil.  
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.04/2022-0082 (2022-OHAN-0003)  
AURREKONTUA (PEM): 62.155 €  
OBRA AMAIERAKO LIKIDAZIOA: 62.155 €  
HONDAKINEN KUDEAKETA (PEM): 1.200 € FIDANTZA (%120): 1.440 €

---

2025eko azaroaren 13an Julen Arteaga Iriondok Txikierdi auzoko 18. zenbakiko etxebizitzako obren amaierako dokumentazioa aurkeztu du.

### **AURREKARIAK**

2022ko otsailaren 23an, ikuskapen-bisitaren ondoren, Usurbilgo Udaltzaingoak jakinarazi zuen baimendu gabeko obrak egiten ari zirela Bista Alai etxean, Txiki-erdi auzoko 18. zenbakian dagoen eraikinean.

2022ko otsailaren 23, udal arkitektoak txostena egin zuen.

2022ko martxoaren 4an, 242/2022 zenbakidun Alkatetza Dekretuaren bidez, besteak beste, honako erabaki hauek hartu ziren:

*LEHENIK. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 220. artikulua ezarritakoaren arabera, goian izendatutako arau-hauste honen erantzuleari egiten ari den obra BEREHALA GELDITZEKO agintzea.*

...

*HIRUGARRENIK. Era berean, 2/2006 legeko 221. artikulua ezarritakoaren arabera, obrak eteteko jakinarazpena jasotzen den biharamunetik kontaktzen hasita, interesdunak HILABETEKO (1) epea izango du, ezkutuko obrak legeztatzeke eskaera aurkezteko.*



Usurbilgo Udala

2026/01/27

2022ko martxoaren 16an, interesdunari Alkatetza Dekretuaren edukia jakinarazi zitzaion.  
2022ko martxoaren 16an, interesdunak jakinarazpenaren edukia itzultzeko eskaera egin zuen.  
2022ko martxoaren 22an, interesdunari 242/2022 zenbakidun Dekretuaren itzulpena helarazi zitzaion.  
2022ko apirilaren 22an, Jose Luis Falcón Gazapo arkitektoak, Manuel Vázquez Cano jaunaren izenean, emandako epea hilabetez luzatzea eskatu zuen.  
2022ko maiatzaren 9an, interesdunari epe luzapena ukatu zitzaioa jakinarazi zitzaion.  
2022ko maiatzaren 27an, interesdunak oinarritzko proiektua aurkeztu zuen.  
2022ko ekainaren 21ean udal arkitektoak txostena idatzi zuen.  
2022ko irailaren 15ean, interesdunak oinarritzko proiektua aurkeztu zuen eta horrekin batera udal arkitektoak ezarritako baldintzak betetzen zituela baieztatzen zuen azalpena.  
2022ko abenduaren 15ean udal arkitektoak aldeko txostena eman zuen.  
2022ko abenduaren 27an Tokiko Gobernu Batzarrak Bista Alai etxean baimenik gabe gauzatzen ari ziren obrak legezatzeko baimena eman zion Manuel Vazquez Canori.  
2024ko abenduaren 13an Julen Arteaga Iriondok obra baimenaren eguneraketa eta titularitate aldaketa eskatu zituen.  
2025eko otsailaren 19an udal arkitektoak aldeko txostena eman zuen.  
2025eko martxoaren 4an Tokiko Gobernu Batzarrak obra baimena eguneratu eta titularitatea Maria Antonia Zabalegui Anabitarteren izenean jartzea onartu zuen.

## **TXOSTENA**

Aurrekarietan adierazi bezala, 2025eko azaroaren 13an Julen Arteaga Iriondok Txikierdi auzoko 18. zenbakiko etxebizitzako obren amaierako dokumentazioa aurkeztu du. Besteak beste aurkeztu dira: obra amaierako memoria, obra zuzendaritzaren azken ziurtagiria, obra amaierako likidazioa, proiektuarekiko egon diren aldaketen akta, planoak, hondakinen kudeaketa amaiera txostena, eta behe tentsioko instalazioaren ziurtagiria.

Aurkeztutako dokumentazioa eta espedientea aztertu eta gero, honakoa esan daiteke:

DOKUMENTAZIOAREN EDUKIA: Oro har, obra amaierari dagozkion agiriak aurkeztu dira eta ontzat ematen da.

OBRA BAIMENA BETETZEA: 2026ko urtarrilaren 13an behean izenpetzen duen teknikariak obra amaierako ikuskapena egin ondoren, ziurta daiteke obrak baimendutako proiektuaren baitan egin direla. Lanen egikaritzan zehar egondako aldaketak ez funtsezkotzat jotzen dira eta, ondorioz, obra baimenarekin bateragarriak direla esan behar da.

HONDAKINEN ARAUDIA BETETZEA: Aurkeztutako hondakinen kudeaketa amaiera txostenak betetzen ditu 112/2012 Dekretuaren 6. artikulua finkatutako baldintzak. Beraz, bidezkoa da fidantza itzultzea

## **ONDORIOA**

Goian esandakoa kontuan izanik, Bista Alai etxean (Txikierdi auzoa, 18) gauzatutako legezatzeko obra amaierari ALDEKO txostena idazten zaio eta honako erabaki hauek hartzea proposatzen da:



Usurbilgo Udala

2026/01/27

**LEHENA:** Bista Alai etxean (Txikierdi auzoa, 18) gauzatutako legeztatze obrei LEHEN ERABILERA BAIMENA ematea.

**BIGARRENA:** Kontuhartzailatzetza sailari jakinaraztea bidezkoa dela hondakinen kudeaketari dagokion fidantza itzultzea (1.440 €)

Hori da behean sinatzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste batzuen kaltetan izan gabe. Udalarari jakinarazten zaiona, dagokion erabakia har dezan.

Usurbilen, sinaduraren datan.  
Udal arkitektoa

Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** Txikierdiko Bista alai etxean (Txikierdi 18) egindako legeztapen obrei lehen erabilera baimena ematea.

**BIGARRENA:** Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2025eko martxoaren 20ean ezarritako 1.440 €-tako fidantza (IE 20-2025) itzultzeko agintzea kontuhartzailatzari adierazitako kontu zenbakian.

**HIRUGARRENA:** Erabaki hau interesatuari eta Kontuhartzaileari ematea.

**Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 09:45ak direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**